

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Autobidearen gaineko
auzia /06

ASTE SANTUA
Elizkizunen
egitaraua /07



ERRASTI ANAIAK

ARETXABALETAKO PILOTARIAK GARAILE UDABERRIKO PILOTA TXAPELKETAN

ASTE SANTUA: PARROKIAKO ELIZKIZUNAK/4 • KIROLAK: UDA ELKARTEAREN ERABAKIA/5

GUARDIAKOFARMAZIA

APIRILAREN 8TIK 11RA
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

APIRILAREN 12TIK 25ERA
ITURRALDE, Mitarte 18. 943 79 27 22

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarteak	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA
Arrasate

LARRIALDIK
SOS Delak

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: LARRINO
Domekan 11:30ean.

MENDIOLA
Domekan 12:00etan, otoitzaldia.

GELLAO
Domekan 12:30ean.

OHARRAK

MEDITAZIO TALDEA SORTZEKO DEIA SADHANA ELKARTEAK
Meditazio taldea antolatu du Sadhana elkarteak. Astelehenetan izango dira jardunaldiak, 11:00etatik 12:00etara. Informazio gehiago gura izanez gero: 616 96 57 95.

BEROA GUNeko BIZILAGUNEN BATZARRA
Beroa gunean etxebizitzaren bat erosi dutenek batzarra egingo dute apirilaren 19an, 19:00etan, udaletxeko ganbaran.

PATINAJE IKASTAROA
Debagoieneko Kirol Zerbitzuek antolatuta patinaje ikastaroa egingo dute kirol etxean. Apirilaren 24an hasi eta ekainaren 5era bitartean izango da ikastaroa, zapatu goizetan, eta bi talde osatuko dituzte: hastapen ikastaroko taldea eta hobekuntza ikastaroko taldea. Izena emateko epea hilaren 20an bukatuko da; hortaz, aurretik deitu kirol etxera: 943 71 26 28.

BASOTXOKO ERRETIRATUAK BENIDORMERA
Basotxo Erretiratuen Elkarteak bidaiari antolatu du Benidormera. Apirilaren 24tik maiatzaren 8ra izango da bidaiari, eta izena Basotxon bertan eman behar da, egunero, 11:00etatik 12:00etara. Oraindik lekua dute autobusean.

LORAMENDIRENAGENDA

BATUKADA IKASTAROA
Loramendi EEk antolatu du Euskararen Egunerako taldea osatzeko. Martin Antxiak emango ditu eskolak, zapaturo, 11:30ean, udaletxe zaharrean.

DIAPOESIA EMANALDIA
Azpeitiko gazte bi etorriko dira diapositibekin lagundutako poesia emanaldia eskaintzera. Hilaren 22an izango da, 19:00etan.

ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN

UDAREN URREZKO ezteien aurkezpena

Urrezko ezteiak ospatu zituen UDA kirol elkarteak 1996an. Ospakizunen aurkezpena apirilaren 17an egin zuten udaletxean. Bertan, UDAn egondako kirol taldeen nondik norakoak aipatu zituzten. Urrezko ezteiak ospatzeko urtean zehar egingo zituzten ekitaldien berri ere eman zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Momorro"

Zomorroa.
— Ortuko gauzai gero ta momorro geixau eitte jako.



ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Nora Ugalde
1ean, 2 urte. Zorionak eta muxu bat! Osaba, izeba eta Maitane.



ARETXABALETA
Maialen Garai
3an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Maider Idigoras
4an, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Aitziber Arrese
14an. Zorionak eta muxu handi bat! Alaitz, Eñaut eta Manex.



ARETXABALETA
Endika Martin
14an, 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Lierni Castilla
15ean, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Josu Idigoras
18an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS

argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak

Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

LIBURUTEGIKOTXOKOA



HAUR LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Apirilaren 2an urtero Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen dute, Hans Christian Andersen idazle daniarraren jaioteguna gogoratzuz. 1965. urteaz geroztik IBBY nazioarteko elkarteak ospatzen du egun hori. Horretarako urtero herrialde bat aukeratzen du Haur Liburuaren eguneko mezua eta irudia egin eta zabaltzeko. Aurten, greziarrek egin dute. Mezua Angeliki Varelak egin du *Liburuaren argia* izenburuarekin, eta irudia Nicholas Andrikopoulusek egin du.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

BEIRALAN

KRISTALDEGIA

Laster denda berritua!

Markoztatzea

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

ANDRA MARI

Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Aretz


taberna

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Eguraldixen iragarpenak jarraiketan dittuzu? Zein dozu gustokuen?




ANABEL ELORZA
Langillie



FERMIN PASAMAR
Jubilaue



VISITACION LOPEZ
Jubilaue



IÑAKI SAN MIGUEL
Jubilaue



MARIA LARRAÑAGA
Jubilaue



JOSU ANTIXIA
Langillie

Bai, telebisiñuen ikusten dot gehixenetan. Aspaldixen asmetan dabitza esan leike, hori uste dot behintzet nik. Gustokorik? Euskadi Irratixen berba egitten dauen Edorta nahiko ona da.

Apur bat, ikusten dittut baiñe iñungo interes espezial barik. Batzuetan asmetan daue, hurrenguen ez; baiñe %75ien baitez uste dot. Ez dauket gustokorik, parien toketan jatena ikusten dot.


Bai, gustetan jat, eta biadjien fan bihera eukiz gero gehixau. Gaiñera, gehixenetan asmetan dauela pentsetan jat. Inguruen geratu biher banaz ETB ikusten dot, eta kanpora banoie bestiek.

Telebisiñuen egunero ikusten dot. Oin asmau... Pellok ez behintzet, azken bi hillebetiotan izugarrizko hanka-sartziek egin dittu-eta. Andoni Aizpuruk egitten dauela onduen uste dot.

Bai, gustetan jat eguraldixen kontuek jarraiketie; nahiz eta batzuetan asmau eta hurrenguen ez. Sobera gustetan jat neri, eguraldixen gaiñien berbarik ez, baiñe barre eragitten dusku.

Ez, entzun iguel bai, baiñe ez dutzet kasurik egitten. Andoni Aizpuru ikusi izen dot eta Pellok esaten dauena entzun be bai, baiñe kasurik egin ez, egin biher dauena egingo dau-eta.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK TOKI FALTA Antzerkia izan zuten joan zen astean ludotekara joaten diren umeek. Joaten ez diren batzuk ere hurreratu ziren, eta bazkide batzuk ezin sartuta geratu ziren. Oso toki gutxi izan zuten, gainera, dantzan egin eta mugitzeko. Ludotekako arduradunek ez dute inor baztertu gura, baina gure herrian ez dugu antzerkiendako toki egokirik; hortaz, ludotekakoei utzi lekua. / M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Aste Santuko egitaraua

Egitarau osatua prestatu du parrokiak aurten-go Aste Santurako. Otoitza izango da nagusi.

ASTEAN BEHIN /05

Errasti anaiak txapelkunak

Errasti anaiak 22-3 irabazi ziren urretxuarrei, eta Udaberri Txapelketako garaile izan ziren.

KIROLAK /05

UDak batzarra egin zuen

UDaren gaineko hausnarketa estrategikoa egin dute hainbat lagunek, eta bazkideei aurkeztu zieten.

ASTEKODATUA

33

LAGUN JOAN ZIREN ARANTZAZURA AUTOBUSEAN

Zapatuan bakearen alde Arantzazura egin zuten erromesaldira 33 lagun joan ziren autobusean Aretxabaletatik. Nor bere automobilean ere beste horrenbeste hurreratu zen.

BESTE EKESANA

“Egin gura diren parking eta zentro logistiko horien atzean Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa

eta Sustapenerako Sailak Gipuzkoako garraioa antolatzeko eta bideratzeko duen borondatea dago. Gure lurralde-tik 10.000 kamioi baino gehiago pasatzen dira egunero, eta horixe da hain zuzen bideratu gura duguna. Neurri bereziak behar ditugu horretarako, badakit, ez bakarrik garraiolariari bideak errazteko orduan, baita garraio eredu bati jarraituta antolatzeko orduan ere.

Garraioa oso garrantzitsua da beste ekonomi sektore batzuk garatzeko: lehengaiz hornitzeko edo bukatutako produktuak esportatzeko. Ez dugu ahaztu behar gure lurraldeak eta gure ekonomiak duten botere handia.

KOLDO AZKOITIA
‘El Diario Vasco’/04-03-30

HERRITARREN BERBAK/ Arantxa Jaka



Fikzioaren indarra

Orain dela gutxi, lokartzea ezinezkoa gertatzen zitzaidan gau batean, ohituren kontra, irratia piztu nuen eta elkarrizketa batekin aurkitu nintzen. Lokutore ezagun bat, liburua argitaratu berri duen idazlearekin ari zen hizketan; eta, ez dakit oraindik zergatik, baina hasieratik nire belarria erne-erne jarri zen. Bukatu zuenean eta gero ere bai, ideia bat txertatu zitzaidan barruan eta horrek hainbat pentsamendu eragin zizkidan.

Idazleak aipatu zuen mendeetan zehar hiru motatako kapitalismoa eman dela: produktiboa (oinarriko beharrei erantzuten jakin zuena); kontsumozkoa (ez zeuden beharrek sortu zituen); eta, oraingo gizaldian ematen dena, fikziozkoa. Zergatik horrela deitu? Berak zioen gaurko egoerari nolabait deitu behar zaiola, baina bere baitan ematen ari den fenomeno bitxi bat gordetzen duela: gaur egun guztiaren kopia behar dugu eta horregatik klonazioaren lasterketa; musika, liburuak, arte ori-

ginala argitaratu aurretik hauen kopiak merkatuan aurkitu daitezke; eredu bezala jartzen zaigun beste gizon/emakume baten antzekoak izateko gogoia...

Ze pentsatu eman didate hitz hauek, gizakiaren alderdi garrantzitsuak ukitzen baitituzte: etikaren eta moralaren alder-

diak. Zer egiten ari gara beraiekin? Hauek zapaltzen baditugu ze gizaki mota ari gara sortzen? Kezkagarria gertatzen zait batetik, naturaren, kosmosaren, gizartearen ori-jinaltasuna aldarrikatzea; eta bestetik, gizakiaren degradazioa

bultzatzea. Niri, behintzat, fikziozko etxe/mundu batean bizitzea ez litzaidake gustatuko, gero eta gehiago baloratzen baitut egiaren indarra eta izate bakoitzaren eskusibotasuna.

Datozen egunek, Aste Santua eta Pazkoa, hau guztia azpimarratzen didate. Ez litzaidake gaizki etorriko egun hauetan, atsedean hartuaz aparte, geure baitan patxadaz eta lasai sartzea, eta gure izate bakarria aurkitzea. Auzartzen zara? Ez zara damutuko.

“Gaur egun guztiaren kopia behar dugu eta horregatik klonazioaren lasterketa”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura Salla



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Batzuk kanpora

Gehixenok oporretan pentsetan egongo zare honez gero.

Pentsetan bakarrik ez, hartute be bai. Inor gutxi geratuko da herrixen egunotan. Batzuk Medite-rraneue hautatuko zeuien, beste batzuk Naparruko landetxeren bat, gazte batzuk Itsasondora joango die, eta planik sortu ez jakona herrixen geratu biher. Eta zer? Egualdixek ez ei dusku lagundu biher. Egonleku goxo-goxo bat topau biher orduen.

Opor egun hauean margo erakusketa bat ikusten joan geike.

Martxe Arana aretxabale-letarrak jarri dau Mondragoeko Arregi margozkatze tailerrien. 16 lan jarriko ditte, eta aspaldixen gure ibarrien egitten dauen lelengo erakusketie izengo da; izen be, Donostian bizi da bera.

Aitor Alcaide xake jokalarixe, barrez, Donostiako Nazioarteko Xake Txapelketie jokaketan joan da. Aste guztixen izengo ditte partidak. Ia zortie dauken eta txapelketa politte jokaketan dauen. UDAko Ohorezko infantillek, oster, Errioxara doiez txapelketa bat jokaketan. Oporrik be ez dutzie emungo gaztetxo honei, hala? Gustora dabitzen seiñale.

Bai kanpora zoiezenok, bai herrixen geraketan garenok ondo-ondo pasau deigun, eta bueltan etortie ez ahaztu!

ASTE SANTUA/ Azken urteotan bezala gurutze-bidea egingo dute parrokiatik Izurieta auzora, Ostiral Santu egunean

Otoitz giroari eta isiltasunari egingo diete tarte herriko kristauek hurrengo lau egunotan

MIRARI ALTUBE

Egun garrantzitsuak dituzte aurrez aurre kristauek. Pastoral barrutiak urteroko hitzorduak jarri dizkie otoitzari eta isiltasunari tartetxo egin gura dietenei. Ostiral Santu egunean gurutze-bidea egingo dute Izurietara, eta Zapatu Santuan Pazko Gaubeila ospatuko dute.

Aste Santuko egunak hainbat eratarata pasa daitezke: batzuk kanpora joango dira atsedean hartzera eta beste batzuk otoitzari egingo diete tarte, elizkizunetan parte hartuta.

PARROKIAN ETA KOMENTUAN

Ostegun Santuan hasiko dituzte Aste Santuko elizkizunak. Otoitz egunei barrua garbituta hasiera emateko bakarkako aitortza izango du gura duenak parrokiari. Arratsaldean, Jaunaren azken afariko eukaristiak egongo dira bai parrokiari, bai komentuan. Egubakoitz Santuan gurutze-bidea egingo dute parrokiatik Izurietara; 11:00etan izango da. Aurten, dagoeneko zortzigarren aldiz egingo dute. Arratsaldean, oster, Jaunaren nekaldiko ospakizunak egongo dira.

Zapatu Santu gauean Pazko Gaubeila ospatuko dute: parrokiari 21:00etan eta komentuan 22:00etan. Parrokiari, gainera, ume txikiak bataiatuko dituzte. Otoi-



Orain dela zortzi urte hasi ziren Egubakoitz Santu egunean Izurietara gurutze-bidea egiten, eta geroztik urtero egin izan dute.

tza eta isiltasuna izango dira nagusi Jesusen heriotza eta piztuerara gogoratzeke. Horregatik, ospakizun horiez gain, otoitzerako une bereziak gertatuko dituzte agustindar mojek egubakoitz eta zapatu goizerako. Bukatzeko, Pazko Igandean bi meza esango dituz-

te: komentuan, 09:00etan, eta meza nagusia, parrokiari, 12:00etan.

AUZOETAKO ELIZKIZUNAK

Baserri auzoetan ere izango dituzte elizkizunak hurrengo egunetan. Ostegun Santuko ospakizunari dagokionez Aozaratzan 17:30ean

izango dute, eta Mendiolan 18:30ean. Egubakoitz Santuko ospakizuna, oster, goiz partean egingo dute: 11:00etan Aozaratzan eta 12:00etan Mendiolan. Pazko Igandeko mezak hiru auzotan izango dituzte: Gellaon 10:30ean, Larrinon 11:30ean eta Mendiolan 12:30ean.

LABUR

Udaleku irekietan begirale izateko izenemate epea zabaldu du Udaleko Kultura Sailak

Urtero moduan udaleku irekiak antolatuko ditu Udaleko Kultura Sailak uztailan. Ia 200 ume eta gaztetxo ibiltzen dira urtero udaleku irekietan. Horretarako, baina, begiraleak behar dituzte, eta izena emateko epea zabaldu dute apirilaren 21era arte. Curriculumak kultura etxera, goizetan, edo udaletxera eroan behar dituzte interesatuek datozen egunetan. Hori bai, 16 urtetik gora izan behar dituzte begirale izango diren gazteek eta euskaraz jakin behar dute derrigorrez; horrez gain, ikasketak eta esperientzia baloratuko dizkiete Kultura Saileko arduradunek.

Apirilaren 24an, zapatua, begiraleendako prestakuntza ikastaroa egingo du Kultura Sailak; hortaz, ordurako begirale guztiak izendatuta izan gurako lituzkete. Informazio gehiago gura izanez gero kultura etxera deitu: 943 71 10 27.

Beroa gunean etxebizitza duten bizilagunek bigarren batzarra egingo dute apirilaren 19an

Beroa lantegia egon zen lekuan etxebizitzak egiten dabil Gasteizko enpresa eraikitzaile bat. Beroa gunea jarri dio izena, eta 155 bizilagun izango ditu. Lehenengo etxebizitzetan, gainera, urte bukaera inguruan sartuko dira bizi izatera. Etxebizitza erosita daukaten bizilagun horiek, baina, ez daude batere pozik etxea saldu dien promotorearekin. Horregatik batzarra egin zuten joan zen egubakoitzean, eta lagun ugari batu ziren. Batutakoek euren kezak azaldu zituzten: kalitate eskaseko materialak, erantzun falta promotorearen aldetik... Hori dela-eta abokatu batekin berba egitea aipatu zuten. Bestalde, bigarren batzar bat egitekotan geratu ziren bizilagunak; apirilaren 19an egingo dute, 19:00etan, udaletxeko ganbaran. Azken egunotan egindako pausoen berri eman eta aurrerantzean zer egin erabaki beharko dute.



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

IRIARTE

Umeen denda

Helduen lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

Mortin
erloju-denda

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

KIROL ELKARTEA/ Elkartearen organigramak aldatu beharra duela ondorioztatu dute

Hausnarketa estrategikoaren berri eman zuten UDAREN batzarrean

M.A.

Ezohiko batzarra egin zuen Aretxabaleta Kirol Elkartean joan zen eguenean. Batetik, hamar lagunek egindako hausnarketa estrategikoa aurkeztu zuten; eta bestetik, elkartea dituen instalazioen gaineko zirriborroa aurkeztu zuten kirol zinegotziak.

Aurten dagoeneko bi batzar egin dituzte UDA kirol elkartearen etorkizuna argitu guran. Oraingoan 20 lagun elkartu ziren, eta hainbat lagunek egindako hausnarketa estrategikoa aurkeztu zuten.

HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA

Hiru batzarretan hamar lagunek egindako hausnarketa estrategikoa aurkeztu zuen Jokin Antxiak, UDAn deitutako batzarrean. Kirol elkartearen egoera aldatzea du helburu hausnarketa horrek, eta ateratako ondorioen berri eman zuen. Elkartearen organigramak aldatu beharra daukela ondorioztatu dute hausnarketa egindako lagunek, hau da, beste egituraketa bat behar duela. Horren haritik, beste organigrama bat proposatu zuten: buruan presidenteak, presidente ordeak, idazkariak eta diruzainak osatutako laukotea egongo da; haien azpian, ordaindutako langilea; eta behe-rago, kirol talde guztiak.

Elkartutako 20 lagunak ados azaldu ziren Jokin Antxiak aurkeztutako hausnarketarekin. Hortaz, orain, buru egingo duen



UDA kirol elkartearen ardura hartuko duen laukotea aurkitu gura dute.

laukotea bilatzea izango du erronka UDAn. Behin lau horiek topatuta, euren azpian lan egingo duten boluntarioak samurrago elkartuko dituzte.

Mikel Uribe txabarria kirol zinegotziak, bestalde, UDAREN instalazioen inguruan Udalen zein asmo dituen agerrarazi zien. Aur-

keztutako zirriborroa hobeto lantzea eskatu zuten UDAn arduradunek Udalarekin hitzarmena sinatu aurretik; izan ere, guztia-ekin ez ziren ados azaldu.

Horrela, bada, maiatzean beste batzar bat egitekotan geratu ziren, eta ikusi egin behar ordu-rako inor topatzen duten.

LABUR

Jendea behar da apirilean egingo duten patinaje ikastarorako taldeak osatzeko

Debagoieneko Kirol Zerbitzuek antolatuta patinaje ikastaroa egingo dute Aretxabaletako kirol etxean. Apirilaren 24an hasi eta ekainaren 5era bitartean izango da ikastaroa, zapatu goizetan, eta bi talde osatu gura dituzte: hastapen ikastaroko taldea hasiberriendako eta hobekuntza ikastaroko taldea patinatze teknika hobetu gura dutenendako. Taldeak osatzeko, baina, 12 lagun inguru gura dituzte antolatzaileek, eta ezin osatuta dabilta. Interesa dutenek Aretxabaletako kirol etxera dei egin dezatela: 943 71 26 28.



Errasti anaiak Udaberriko txapelkunak

Asteburuan jokatu zituzten Udaberri Pilota Txapelketako finalak. Errasti anaiek 22-3 irabazi zieten urretxuarrei, eta lehen mailako txapelkun izendatu zituzten. Iaz ezin izan zutena aurten lortu dute. Hirugarren mailako Oion-Uriarte bikoteak, ostera, 22-5 galdu zuten zumarragarren aurka. Txapelketako partidu guztiak irabazi ostean finala galdu egin zuten. /M.A.

URKULU

FERRETERIA • BRIKOLAJEA
INDUSTRIA HORNIDURAK

Mitarte 23 / ARETXABAETA
Tel.: 943 79 96 66 / Faxa: 943 77 10 33
urkulu@cadena88.com

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABAETA
Tel.: 943 79 04 39

**Mobiliario
ARENZA**

• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erloju denda
Bitxien diseinua
Bitxien konponketa

Otalora 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABAETA

JAUNARTZE-ERREPORTAJEAK
60 EUROTİK AURRERA

**MARIA JESUS
ARGAZKILARIA**

ERREBELATU BAKOITZEKO KARRETEA DOAN
EURO BAT GEHIAGO ORDAINDUTA ZURE ARGAZKIAK BERRIZ UKITUKO DITUGU
ESKAINZA 2 ERAMAN 1 ORDAINDU ROS PLUS (ARGAZKIAK 11,4 x 17,1)
ESKA EZAZU ZURE DESKONTU - TXARTELA

ARETXABAETA HERRIKO PLAZA 10

www.mjargazki.com

943 771255



Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Eguaztena / 2004ko apirilaren 7a / 162. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Autobidearen norabidea finkatzen hasi dira, eta herriko kaltetuak kexu dira

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Martxoko azken egunean, autobidearen eragina zuzenean jasaten dutenek bilera egin zuten kultura etxean. Kexa ugari entzun ziren bertan; nagusia, baimenik izan gabe proiektuaren ibilbidea adierazteko hesolak jartzen hasi direla beraien lurretan.

Joan den eguaztenean, martxoak 31, hainbat eskoriatzar bildu zen herriko kultura etxean. Eskoriatza iparraldetik igaroko den autobidearen eraginak zuzenean jasaten dituzten lagun ugari egon zen bertan. Hasieran lepo bete zen eraikina, baina deialdia lur-jabeendako zenez, 80 bat lagun geratu ziren azkenean. Gehienak informazio bila gerturatu ziren kultura etxera, baina baita beraien kexak plazaratzera ere.

BAIMENIK GABE LURRETAN

Autobidearen eragina jasaten dutenak batera joateko egin zuten eguazteneko bilkura. Oraindik proiektuaren kontrako arrazoi-bideak egiteko aukera dute kaltetuek, baina dagoeneko sartu dira beraien lurretan; baimenik

gabe. Hori ikusita, behin baino gehiagotan eskatu dituzte azalpenak, eta baimenik behar ez dutela erantzun diete kasu gehienetan.

Hasieran, proiektuaren ibilbidearen kontrako alegazioak egiteko aukera izan zuten kaltetuek. Orain, ibilbidean aldaketak egiteko eskatzen dutenen alegazioak jasotzen dituzte. Beraz, ibilbide zehatza finkatu barik dago.

Kaltetuek argi dute proiektua aurrera eramango dela, baina oraindik ez dakite zehatz nondik igaroko den. Hala ere, beraien lurretan sartu eta dagoeneko hasiak dira ibilbidea adierazten dituzten hesolak sartzen.

ALEGAZIORAKO DENBORA

Apirilaren 26ra arte dago alegazioak egiteko aukera. Hala ere, kaltetu askoren ahotan entzun da denbora laburra dela horretarako. Proiektuari buruzko 33 liburu-riki daude udaletxean. Txosten horiek guztiak ikertu barik daude oraindik, ZE BARRI?-ri adierazi diotenez. "Gure ustez, denbora laburra da guztiak ikertzeko. Nahita ere ezin izango genituzke irakurri eta ondorioak atera", adierazi digute Eskoriatzatik.



Marinetik pasako da autobidea, besteak beste, eta bertako zenbait lurretan hasi dira hesolak sartzen.

INFORMAZIO FALTA

Martxoko azken egunetan Infolur enpresak bulegoa ireki zuen, jabeek jasandako eraginei buruz

informatzeko. Hainbat kaltetu gerturatu ziren. Handik irteterakoan, baina, kexu agertu ziren asko. Beraien ustez, informazioa

ematera baino gehiago, hartzera joan ziren Infolurkoak. Proiektua gertutik jarraituko dutela adierazi dute eskoriatzarrek.



Jesus Arroiabe seigarren, plater-tiro txapelketan

Jesus Arroiabe eskoriatzarra plater-tiroan aritzen da. Joan den egunean Valentzian izan zen, bertan jokatu den Errege Koparen lehen itzulian parte hartzeko. Jesussek 209 lehiakide izan zituen eta seigarren postua lortu zuen. Hurrengo txapelketa hilaren 23tik 25era Badajozen jokatu da, Jerez de los Caballerosen hain zuzen ere. Arroiabe, besteak beste, Gasteizen, Legazpin eta Irunen trebatzen da plater-tiro txapelketarako. / Z.V.M.

OHARRA

Kiroldegiaren ordutegia Aste Santuan

Eskoriatzako kiroldegiak, Aste Santua dela-eta, aldaketak egingo ditu ordutegian. Lehenengo egunetan izango dira ordutegi aldaketak, eguenetik domekara. Apirilaren 8an, 9an, 10ean eta 11n kirol instalazioak goizez bakarrik irekiko dituzte, 09:30etik 13:00etara. Bestalde, astelehenean erabiltzaileek ez dute kiroldegia erabiltzeko aukerarik izango, atek itxita egongo baitira. Hurrengo egunetan normaltasunez egingo dute lan.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Arizmendi Ikastola-Jose Arana.....	943 77 20 25
Arizmendi Ikastola-Almen.....	943 77 20 25
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 54 34
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Delak.....	112

OHARRAK

PATINAJE IKASTAROA
Patinaje ikastaroa egingo dute maiatzean, igandeetan, Eskoriatzako pilotalekuan, 10:30etik 12:30era. Izena emateko epea apirilaren 30ean amaitzen da. 10 euro ordaindu beharko dituzte bazkideek; gainerakoek, 13.

AMUSKAREN IRTEERA
Amuskak Gijon eta Oviedora irteera egingo du martxoaren 22an eta 23an. Izena emateko egunak apirilaren 19an eta 20an, 18:00etatik 19:00etara.

ASTE SANTUKO ELIZKIZUNAK

Eskoriatzako parrokiak hainbat elizkizun antolatu ditu Aste Santurako

Z.V.M.

Ohitura zaharra da Aste Santua ospatzea. Kristautasunean oinarritutako ohitura. Fededun ugari ospatzen duten jaia. Beste askok, baina, oporraldi bezala ikusten duten urteko garaia. Bakoitzak erabakitzen du nola ospatu. Fededunek, baina, egitarau zabala dute, bihar hasita.

EGITARAUA

Zapatuan Arantzazura egindako irteerarekin eta Erramu Domekarekin Garizuma garaiari amaiera eman zioten kristauak. Aldi berean, Garizuma bukaerarekin Aste Santuari ongietorria egiten zaio.

Eskoriatzako parrokiak gertu du garai horretarako egitaraua. Horrela, Jesusen heriotza eta berpiztea ospatuko dute eskoriatzar ugari datozen egunotan.

Bihar, Ostegun Santua, 10:00etatik 11:00etara bakarkako aitortzak egingo dituzte parrokiak, eta horrela emango diote hasiera egunari. Arratsaldean, Jaunaren Azken Afariko Eukaristia ospatuko dute, hau ere parrokiak, 18:00etan hasita. Zarimutzen 17:00etan izango da meza; Bolibarren 18:00etan; Apotzagan 17:00etan; eta Mendiolan 19:00etan. Egokienan Anaitasun afaria egin ondoren, eguneko azken ospakizunari bide emango diote, Ordu Santua eginaz herriko parrokiak.

Ostiral Santuan, apirilak 9, Gurutze-bidea egingo dute parrokiara gerturatzen direnek, 11:00etan hasita. , 17:00etan, Jau-



ARTXIBOA

Eskoriatzako parrokiak egingo dituzte Aste Santuko egitarau gehienak.

naren Nekaldiko Ospakizuna egingo dute, hau ere parrokiak. 20:00etan, elizara gerturatutakoek gurutzaren inguruan otoitzaldia egingo dute, eguna amaitzeko.

Zapatu Santua ospatuko dute hilaren 10ean hainbat eskoriatzarrek, 22:00etan hasita, herriko

parrokiak egingo den Pazko Gau-beillarekin, hain zuzen ere.

Pazko Igandea goizean goiz, 08:30ean hasiko da; Eukaristia meza esango du parrokiak, zaharren egoitzan. Eguerdian, aldiz, meza nagusia eta Bataio ospakizuna egingo dituzte.

LABUR

Errepublikari eta Espainiako gerrari buruzko erakusketa

Bigarren Errepublikari eta Espainiako gerrari buruzko erakusketa irekiko dute hilaren 18an kultura etxean. Maiatzaren 12ra arte egongo da irekita. Garai haietako askotariko materiala egongo da ikusgai: orduko argazkiak, dokumentuak, aktak, banderak... Ordu-tegiari dagokionez, asteleheneetik zapatara 17:30etik 20:30era eta domeketan 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 17:30etik 20:30era. Erakusketa antolatzeko, herritarren laguntza funtsezkoa izan da.

Gatzagan ere ospatuko dute 'Iparraldea bertan'

Debagoieneko eta Iparraldeko kulturek elkar ezagutzeko asmoz, *Iparraldea bertan* ekitaldiak antolatu dituzte Debagoienean. Gatzagan ere izango da zer egin, apirilaren 21etik 27ra, hain zuzen ere. Garro jauiregian *Euskal Herriko Aurpegiak* gaiari buruzko ukipen pantaila ezarriko dute. Interesatuak arratsaldean joateko aukera izango dute, 18:00etatik 20:00etara. Bestetik, apirilaren 21ean kultura etxean hitzaldi elkarrizketa egingo dute, 17:30ean. Bertan, Iparraldetik etorritako bi kide arituko dira, eta *Iparraldea bertan* zertan datzan, zertara etorri diren... azalduko diete herritarrei.



MIRENTXU TABERNA
Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

AZKOAGA ESTANKOA

943 71 48 77
Zure Zerbitzura

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA



- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

COMPOSTELA Taberna

Olagarro espezialitatea

San Pedro 12
ESKORIATZA
943 71 48 70



Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

BERGARA-UDA

Bergararren eta
aretxabaletarren arteko
derbia Goiena Telebistan

Apirilaren 17an, zapatua,
Agorrosin futbol zelaian, 17:00etan.
19:30ean GOITBn



Ikusitekoa!

BERGARA-UDA
Aretxabaletako laguntzaileak: Aretz, Azkena, Basabe jatetxea,
Ezkutu, Gurea, Orly, Zارايا.
Bergarako laguntzaileak: Pol-Pol eta Nahikari taberna



IRAGANA GOGORATUZ

Itzala utzi duten lantegiak:
Zerrajera, Elma...

Apirilaren 20an, martitzena,
20:30ean eta 22:30ean



Ikustekoa!

IRAGANA GOGORATUZ
Goienak eta Fagor-ek lankidetzan egindako saioa

